

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Domenech Arrieta

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Eper kalean (Aizkibel kalea) jaio zen 1937an. Aitaren aldeko amama, Eustakia `Erribera`, Bartzelonara joan zen neskame eta katalan batekin ezkondu zen; harengandik datorkie Domenech abizena. Aita han jaio zen, baina, aitona gaixotzean, Azkoitira joan ziren bizitzera. Ama donostiarra zen. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Amamak martxan jarritako negozioari eutsi zioten urte luzez eta denetarik saldu izan zuten herrian oso ezaguna zen dendan: gozokiak, egunkariak, fruta... Erroskilak, txurroak eta karameluak etxean egiten zituzten. Mendizaletasuna ere aitarengandik zetorkien eta anai-arreba guztiak asko joan izan ziren mendira ume-umetatik. Euren dendan jasotzen zuten Anaitasuna Mendi Bazkunako kide izateko kuota eta mendi-ibilaldi guztietan parte hartzen zuten. Mendi garaietako kanpamentuetara ere joaten ziren eta Europa osoan zehar ibiliak dira. 1961ean Azkoitiko Udalean hasi zen lanean administrari gisa eta bertan lan egin zuen 1997an erretiroa hartu arte. Demokrazia garaiaren hasieran, idazkaririk ez zegoenez, berak bete zuen hutsune hori denbora batez. [Maria Angeles](#) eta [Mari Consuelo](#) ahizpekin batera egin zitzaion elkarrizketa (Encarna eta Salvador anai-arrebak ere bertan zeuden).

Zintak

AZK-069

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2020-07-28
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

AZK-070

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2020-07-28
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

AZK-071

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2020-08-04
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Euskaraz egitearren, isuna ordaindu behar eskolan

- **Erref:** AZK-069/003
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:03:53. **Bukatu:** 00:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Eskolan erdaraz hitz egin behar. Euskaraz eginez gero, isun modura, dirua eramane behar izaten zuten. Berak mojarri garbi esaten zion ez zuela dirurik eramango. Amarekin erdaraz egiten zuten, baina bestela beti euskaraz. "Señoritak" edo emakume aberats antzekoek erdaraz egiten zuten, dotoreagoa zelakoan.</p>

2. Gaztetatik mendira; Europa osoan zehar

- **Erref:** AZK-069/005
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:06:32. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gaztetatik mendira joan izan dira batera eta bestera. Etxean ez zieten inoiz debekatu hala ibiltzea. Maria Jesusek gidatzeko baimena ateratu zuenean, Europa osoa pasa zuten. Mendiko botak eta motxila beti aldean eramaten

zituzten badaezpada. "Montaña sagrada"n egon ziren. Lehenengo botak Chiruca markakoak; aurretik abarkekin eta ferradun botekin ere ibiltzen ziren.

3. Aita mendizalea; zaletasuna ingurukoei kutsatu

- **Erref:** AZK-069/006
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:10:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita zen mendizalea. Ama Donostiako Parte Zaharrekoa. 21 urterekin ezkondu eta berehala haurdun geratu zen. Aitak ama lehenengo aldiz mendi puntara eraman zueneko, handik itsasoa ikusten zela eta. Beste behin Kakute mendira igotzerakoan, amak bidean esan zuena. Gurasoak eta lehengusua joaten ziren asko mendira, baita nagusitu eta gero ere. Beraiei ez zieten inoiz ezer esan bidaiatzearren. Orduan turismoa ez zen ohikoa eta ingurukoak kutsatu zituztela dio Maria Angelesek.

4. Praken gainetik gona jantzita mendira; leizeetara sartzeko zaletasuna

- **Erref:** AZK-069/007
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Azkoitiko mendizaleak abarketekin joaten ziren mendira. Neskak gona zuriekin. Prakak jantzi zituzten lehenengo emakumeak eurak izan omen ziren. Askotan praken gainetik gona jantzita irteten ziren etxetik, jendeak ezer ez esateko. Leize-zuloetan sartzea gustatzen zitzaien eta prakak praktikoagoak ziren horretarako. Aralarko leize-zuloan sartu zirenean, artzainak begira egon zitzaizkien.

5. Tximinia garbitzaileak uzten zizkien eskalatzeko sokak

- **Erref:** AZK-069/008
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Mendira joaten zirenean, pixka bat eskalatzea ere gustatzen zitzaion Maria Angelesi, batez ere rappela eginez jaistea. Euren bizilaguna tximiniak garbitzen ibiltzen zen eta hark uzten zizkien sokak. Amari ez zitzaion gustatzen eta ezkutuan eramaten zituzten sokak.

6. Monte Perdidora igo zuen lehen emakume azkoitiarra

- **Erref:** AZK-069/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:14:58. **Bukatu:** 00:16:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mendizaletasuna herrian. Umeentzako kanpamentuak antolatzen ziren. Beraiek izan omen ziren herrian praka "babaroak" jantzi zituzten lehenak. Maria Angeles 1959an Monte Perdidora igo zen; lehenengo emakume azkoitiarra izan omen zen. Balaitus mendia ere igo zuen. Hasieran anaien laguntzarekin joaten ziren, baina gerora hiru ahizpak bakarrik. Inoiz ez zieten debekurik jarri.

7. On Domingo abadea, umeei "mamuxak" banatzen

- **Erref:** AZK-069/013
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

On Domingo abadeak "mamuxak" (pasak) banatzen zizkien umeei eta denak haren atzetik ibiltzen ziren. Umetako kontuak; non jolasten ziren.

8. On Domingo abadea, gizon ona

- **Erref:** AZK-069/016
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

On Domingo abadearen inguruko kontuak. Errezilen serora egondako izeba bat bizi izan zen beraiekin. Oso fededuna eta itxia zela diote. On Domingo goizeko sei eta erdietarako jauna ematera joaten zitzaion. Abadeak goizean goiz gaixoen arropak garbitzen zituen ibaian. Oso maitea zen herrian eta omenaldia ere egin zioten.

9. Emakume asko neskame edo inude Espainia aldera

- **Erref:** AZK-069/018
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitita katalana zen: Domenech. Amama eta ahizpa neskame joan ziren Bartzelonara eta bertan ezkondu. Neska asko joaten ziren neskame edo inude, euren umeak etxean lagata. Gaztelaniaz ez zuten tutik jakiten eta egoera gogorak bizi behar, nahiz eta normalean ondo hartzen zituzten.

10. Erribera baserria

- **Erref:** AZK-069/019
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Amamari Eustakia `Erribera´ esaten zioten, aita Erribera baserrikoa zuelako. Kukuherri auzoan dago baserria. Garai batean pobreenetakoa omen zen. Abadeak mendi puntatik baserria bedeinkatu zuela eta bertakoak zer erantzun eman zion.

11. Esnegorriak Kataluniara bidali, han saltzeko

- **Erref:** AZK-069/020
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:33:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:

Amama, Eustakia `Erribera`, Bartzelonara joan zen neskame eta han ezkondu. Amama tratulari ona zen eta hemengo pinudietan batutako esnegorriak ("robelloiak") Kataluniara bidaltzen zituzten, han saltzeko. Zergak ez ordaintzearren, iritsi baino kilometro bat lehenago trenetik botatzen zituzten perretxikoak. Beraiek ere biltzen zituzten, baina etxerako. Orduan eurak bakarrik jaten zuten perretxiko klase hori Azkoitian.

12. San Andresetan Eustakia `Erribera´ren zozketa

- **Erref:** AZK-069/021
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:33:09. **Bukatu:** 00:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Amamak, Eustakia `Erribera´k, zozketa postua jartzen zuen San Andres jaietan. Portzelanazko ontziak eta bestelako gaiak edukitzen zituen eta kartak banatuta egiten zuen zozketa. Amama emakume bizia zen eta kalean zebiltzan ume guztiak zaintzen ibiltzen zen.

13. Familiako gozogintzaren hasiera amamaren erroskillekin

- **Erref:** AZK-069/022
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:34:57. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Amama emakume bizia eta tratularia zen. Mendaroko lehengusuren bati mesedea egin zion eta hark trukean erroskillen errezeta eman zion. Hortik hasi zen amama erroskillak egin eta saltzen. Gerora, euren aita ikasi zuen eta baita beraiek ere. Aitak karameluak eta "malbabiskoak" ere egiten zituen. Amamak ireki zuen familiako lehenengo denda. Hasieran sindikalisten etxe azpian zegoen. Mari Consuelo jaio zenean, 1938an, Kale Nagusiko 49. zenbakira pasa ziren. Cuenderena zen lokala.

14. Donostiako Arrieta gestoriara lanera

- **Erref:** AZK-069/026
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:41:23. **Bukatu:** 00:42:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Maria Angeles 1960an Donostiara joan zen bizitzera, osabarena zen Arrieta gestorian hasi zen lanean eta. Espainiako gestoria inportanteenetakoa zen. Ordurako hogeitaka langile zituen. Arrietatarrek hainbat negozio zituzten Donostian: arropa denda, bitxitegia... Bitxitegia famatua zen.

15. Emakumeak, langile finagoak

- **Erref:** AZK-069/028
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:45:47. **Bukatu:** 00:47:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Arrieta gestorian emakumezkoak gehiago ziren gizonezkoak baino. Bulegoetan emakumezko gehiago egoten zela diote, finagoak eta merkeagoak (gutxiago ordaintzen zitzaielako) zirelako. Gizonezkoak azkarrago entretenitzen direla beste kontu batzuekin diote. Lantokian enkarguak egiten zituen mutikoa hondarrez beteta etortzen zela kontatzen du Maria Angelesek.

16. Dendan ordutegirik ez; jendea zuzena egunkariak ordaintzen

- **Erref:** AZK-069/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:47:22. **Bukatu:** 00:49:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Maria Angelesek goizeko zortzietatik eguerdiko ordu bietara lan egiten zuen Arrieta gestorian. Baina etxeko dendan ez zuten ordutegirik. Salvador, anaia, goizeko bostetan jaikitzen zen, bost eta erdietarako egunkariak iristen zitzaizkielako. Herrian lapur fama zuten batzuek egunkaria fin-fin ordaintzen zutela diote. Anaia hil zenean, Unidad egunkariaren aleak mahai gainean utzi zituzten eta alboan diru kutxa. Jendeak txintxo-txintxo ordaindu zuen.

17. Denerako denda zen eurena

- **Erref:** AZK-069/030
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:49:02. **Bukatu:** 00:51:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Euren dendak denerako balio zuela diote. Jendea dendara joaten zitzaien nor hil zen galdezka edo bestelako kontuak jakitera. Kanbioak eskatzera ere jende asko joaten zitzaien. Edozein ordutan azaltzen zitzaien jendea.</p>

18. Dendako banku famatua; denetarik saltzen zuten

- **Erref:** AZK-069/031
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:51:06. **Bukatu:** 00:52:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bikoteak zinemara joaten zirenean, batzuetan, umeak euren dendan uzten zituzten. Banku luze bat zegoen eta han egoten zen jendea eserita. Neska-mutil gazteak banku hartan eseri eta mahatsa jaten egoten ziren, kontuak esanez. Denetarik saldu izan dute: egunkariak, nobelak, fruta... Euren amama izan omen zen platanoak Azkoitira ekarri zituen lehenengoa.

19. Egunkari asko saltzen zituzten

- **Erref:** AZK-069/032
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:54:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Egunkari asko saltzen zuten; larunbatetan 1000 ale. Azkoitiarrak irakurzaleak direla diote. Orduko egunkariak: "La voz de España", "Diario Vasco", "La Gaceta del Norte"... "La voz de España" saltzen zen gehien. Zer prezio izaten zuten. Hileko lehen astelehenean garestiago.

20. Anaiaren lan ezbeharra

- **Erref:** AZK-069/034
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:55:43. **Bukatu:** 00:56:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrik

Laburpena:

Anaiak Deustun ikasi zuen mekaniko elektrikari lanbidea. Forjas-en lantegi buru egon zen. Harreman oso ona zuen bertako langileekin. Bajan egon ostean, lanera itzuli eta istripuz hil egin zen. Ofizialki bihotzekoak jota hil zela esan zuten, baina jendeak ez zuen sinesten, mutil osasuntsua zelako.

21. Dendako erakusleihoan zinemako afixak eta albiste zatiak

- **Erref:** AZK-070/002
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Zineko "koadroak" edukitzen zituzten dendako erakusleihoan. Pelikularen eszenen irudiak izaten ziren. Horren truke Olinpiako zinema dohain edukitzen zuten. Albiste interesgarriak ere erakusleihoan jartzen zituzten eta jende asko joaten zen haiek ikustera. Lehen euskalduna Everestera igo zenean, ospatu egin omen zuten.

22. Jendea ilaran zain, euren txurroak jateko

- **Erref:** AZK-070/003
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:05:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Hasieratik saltzen zituzten gozokiak euren dendan. Txurroak ere egiten zituzten, hasieran etxean eta gero dendan bertan. Nola egiten zituzten. Valladolidetik ekarri zuten makina automatikoa. Erdaldunek "La Churrería" esaten zioten euren dendari. Goizeko meza ostean, jendea ilaran egoten zen zain. 11k aldera egoera baretzen zenean, mendira joaten ziren.

23. Anaitasuna Mendi Bazkuna; kuotak ahizpak jasotzen zituen

- **Erref:** AZK-070/004
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:07:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Anaitasuna Mendi Bazkunaren kuotak Encarnita ahizpak jasotzen zituen dendan. Herriko mendizale onenaren izendapena eman zioten. Anaitasuna Mendi Bazkunaren sortzaileak. Hasieran lagun-talde bat zen. Gerora hasi zen elkarte indarra hartzen. Mari Lurdes ahizpak Mendi Bazkunaren ibilbidearen inguruko bideo bat egin zuen.

24. Maria Angeles hasi zen argazkilaritzarekin eta ahizpak jarraitu

- **Erref:** AZK-070/006
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:09:37. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Maria Angeles, bera argazkietan ez azaltzearren, argazki kamera bat erosi eta argazkiak ateratzen hasi zen. Diapositibak egiten zituen. Anaiak Madrilgo "rastro"an erositako kamera txiki batekin hasi zen 50eko hamarkadan. Maria Angelesek ahizpa gazteagoari pasa zion zaletasuna eta hura gero argazkietatik bideoetara pasa zen.

25. Anaitasuna Mendi Bazkuna; hasieran ibilaldi neurtuak, gero Zazpi Kurutze

- **Erref:** AZK-070/010
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:14:08. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Anaitasuna Mendi Bazkunak kolpetik indarra hartu zuen eta ehundik gora bazkide egin ziren berehala. Urteko kuota ordaintzen zuten bazkideek. Encarnita ahizpak jasotzen zituen. Txangoak edo ibilaldiak antolatzeko gobernadoreari esan behar izaten zitzaion. Maria Jesusek egiten zituen paperak, Udalean lan egiten zuen eta. Hasieran ibilaldi neurtuak egiten hasi ziren. Nola antolatzen zuten. Geroago Zazpi Kurutze; hasieran lau urtetik behin egiten zen.

26. Umeentzako mendiko kanpamentuak

- **Erref:** AZK-070/011
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:21:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Anaitasuna Mendi Bazkunak umeentzako kanpamentuak antolatzen zituen, Larraskandan, Martirietan... Azkenengo egunean festa egiten zuten, jolasak eta bestelako ekintzak antolatuta. Begirale moduan nortzuk ibiltzen ziren. Kanpamentuei esker herrian mendizaletasuna bultzatze zela diote. Hernanitik etorritako talde batek behin laguntza eskatu zien. Haiekin izandako tirabirak.

27. Kakuteko gurutzea auzolanean jarria; dirua batzeko ekitaldiak

- **Erref:** AZK-070/013
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Kakuteko gurutzea egiteko jaialdi bat antolatu zen. Jaialdian parte hartu zutenek ere sarrera ordaindu zuten. Mendizaleen korua Gabonetan eta Santa Agedetan ere kantuan irten ziren, dirua batzeko. Herri osoak parte hartu omen zuen, jaiero-jaiero, gurutzea eraikitzen. Kanpotik etorritako mendizaleek ere laguntzen zuten. Inaugurazioa egiteko, apezpikutzara joan zen Maria Angeles, meza eman zezaten eskatzera.

28. Zumaiko flysch-a bisitatzeko lehen ibilaldia

- **Erref:** AZK-070/017
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:33:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>Zumaian lehenengo aldiz flysch-a bisitatzeko txangoa antolatu zenean, Maria Jesus eta Mari Lurdes ahizpa gazteena joan ziren. Egunkarian iragarri zuten eta izugarritzko jende pila azaldu zen. Antolatzaileak beldurtuta geratu ziren. Mari Lurdesek dena grabatu zuen bideoz. Zer ibilbide egin zuten. Marea behean zegoela hasi zuten ibilaldia, baina bukatzerako batzuek busti egin ziren. Ibilbide gogorra izan zen. Gehiago ez zuten era horretan antolatu.</p>

Transkripzioa

- Maria Angeles: Zeana´re oso politte, hori guk bota giñuna, zea, Zumaikue.
- Maria Jesus: Flysch-ena .
- Flysch-e. Lehenengo aldixe ein zanin flysch-en eskurtsixue ta beaixek bildurtute geldiu zin.
- M.J.: Bai be, pediodikun anuntziau zebe-ta flysch-ea eskurtzixue eingo zala. Ta han jun giñen haure ta ni, bixok. Zea... onbre...
- M.A.: Pelikule osue.
- M. J.: Ta jendie... jendie hilaxe juntau zan! Ta bildurtu ein zin Zumaiko jendie...
- M. A.: Bildurtuko ez zittunan, ba?
- M.J.: ... organizau zebeak. Ta baiño oso gogorra zala ta oso gogorra zala.
- Mari Consuelo: Oiñetako onak ber ziela ta zea ta...
- M. J.: Oiñetakuk-eta ber zala ta jendik iñok kasoik ez.
- M. A.: Ezta kasoik´e, danak ertetzeko pronto .
- M.J.: Gero hor ikusten da, baiñe... jendie...
- Hori lehenengo aldixe ein zana?
- M. A.: Lehenengo aldixe ein zana. Oin eitten debe /eittebe/ ya,...oin

diferentie da, baiño baiño lehelengo aldixe ein zanin...

- Encarnita: Gaiñea, marea alta zauen ta jaisten...

- M. C.: Ez, aldrebeska, ixilik egon hai, marea baja zauen ta.

- M.A.: Marea baja, gero altatu.

- M.J.: Mendiz jun, ta...

- M.C.: Sakonetaa jeitsi...

- M.J.: Sakonetaa jeitsi eta handiken Zumaire flysch-etiken.

- M.C.: Itsasotiken.

- M.J.: Itsasotiken. Dexente gogor izen zan, baiñe batzuk geixki allegau zin.

- M.A.: Bueno... pelikulen ikusten den /ikusten/, pelikulie asko...

- M.C.: Aaa.. akabera hialaxe eitten du /eitteu/ batek.

- M.J.: Ta geo, gaiñea, karo, marea baja. Porke haixek kontun hartu zebe urtin bajuna ordun zala ta egun hare aprobe txau zan hori eitteko. Ta ailleau giñeneako...

- M.C.: Ixotzen!

- M.J.: Karo, jendie nekau ta ya ure ya haitz-artetaa ure etortzen.

- Batzuk larri igual?

- Bai! Larri ez, baiño ba... ba... baiño gehixo ez zebe ein hola, e! Gehixo ez zebe ein. Ez zin atrebiu gehixo eitteik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com